

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2015eko APIRILAK 28 / 28 - ABRIL - 2015

TOKIA / LUGAR: SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 28/04/2015

HASIERA / INICIO: 17:00 horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
 2. Alkateordea, Don Iker Ocea Sobrón jauna
 3. Alkateordea, Don Andoni Iruarizaga Amantegi jauna
 4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
 5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
 6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiagarai jauna
- Don José María Andrés Ibañez de Garaio jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)

Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Doña Idoia Agorria Martínez andrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)

Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)

Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA

Don Fernando Castillo Rodríguez jauna PSE-EE (PSOE)

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES


Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

IZAERA / NATURALEZA: OHIKOA / ORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabai-datzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2015EKO MARTXOAREN 24KO OHIKOA.

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2015eko martxoaren 24ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Castillo Rodriguez jaunaren abstentzioarekin, **ONARTU EGIN DU 2015eko martxoaren 24ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.**

BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:

* Kontu-Hartzaile Ordea Velasco Perez andreak: Informazioa dakargu Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundearen aurrekontu-arautegiak ezartzen duena kontuan izanda.

Durangoko Udalaren 2014ko hasierako aurrekontua, 27.319.519 eurokoa zen. Gerora, aldaketa batzuk egin ziren 10.656.415,59 kopuruagatik. Hortaz, behin betiko aurrekontua 37.975.934,59 eurokoa izan da.

Diru-sarreraren exekuzio maila %74,43koa izan da. Portzentaje honetatik, %103,51a ohiko diru sarrerei dagokie eta %-2,86a kapitaleko diru sarrerei.

Gastuei dagokionez, batez beste %74,72a exekutatu da. Honetatik, ohiko gastua %90,09a izan da eta %29,32a kapitalekoa.

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR, CORRESPONDIENTE A LA ORDINARIA DE 24 DE MARZO DE 2015.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 24 de Marzo de 2015.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría y con la abstención del Concejal Sr. Castillo Rodríguez PSE-EE (PSOE) dada su inasistencia a la misma, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de 24 de Marzo de 2015.


DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:

* Interventora en funciones Sra. Velasco Perez: Aportamos información, de acuerdo a lo establecido por la normativa presupuestaria de los entes locales del territorio histórico de Bizkaia.

El presupuesto inicial del Ayuntamiento de Durango para el 2014 era de 27.319.519 euros. Más tarde, el presupuesto se redujo en 10.656.415,59 euros, por lo que el presupuesto definitivo ha quedado en 37.975.934,59 euros.

El nivel de ejecución de los ingresos ha sido de un 74,43 %, del cual un 103,51 % corresponde a ingresos ordinarios y un -2,86 %, a ingresos de capital.

En cuanto a los gastos, se ha ejecutado el 74,72 % de media, del cual un 90,09 % corresponde a gastos ordinarios y un 29,32 %, a gastos de capital.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

2013ko urtearekin konparatuz, gastua %-2,40a jaitsi egin da 2014ko urtean. Ohiko gastuei dagokionez, %-3,06a izan da jaistea eta kapital gastuei dagokionez %4,10eko igoera egon da.

Diruzaintzaren soberakin garbia 2014ko urtean, 1.661.677,47 eurokoa izan da.

2014ko behin betiko aurrekontu bateratua, 41.192.883,91 eurokoa izan da.

Respecto del año 2013, el gasto se ha reducido un -2,40 % en el año 2014, del cual un -3,06 % corresponde a gastos ordinarios y un 4,10 %, a gastos de capital.

El excedente neto de tesorería ha sido de 1.661.677,47 euros en el 2014.

El presupuesto unificado definitivo para el 2014 ha sido de 41.192.883,91 euros.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Atzo, Bozeramaileen Batzordean, aho batez, erabaki genuen gaurko bilkurako 7. puntua Osoko Bilkura honetatik ateratzea eta erakunde-adierazpen moduan onartzea eta horrela plazaratzea jendaurrean. Puntu honetan, Euskadiko Amnistia Internazionalak aurkeztutako erakunde-adierazpena sartzen da, alegia, homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala.

Eskertuko nieke hedabideei, Osoko Bilkura hau amaitutakoan, bertan geratzea adierazpen instituzionala irakurriko dugulako bozeramaile guztien ahobatezkotasunaz. Gaia garrantzitsua da eta, horrexegatik, behar duen zabalkundea eman diezaiozuela erregutzen dizuet.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Ayer en la Junta de Portavoces se decidió de manera unánime extraer el punto 7º de este Pleno y aprobarlo como declaración institucional y presentarlo como tal ante la opinión pública. En este punto se incluye la declaración institucional de Amnistía Internacional Euskadi elaborada para el día internacional contra la homofobia y la transfobia.

Agradecería a los medios de comunicación que permanezcan en la sala una vez finalice el Pleno, ya que procederemos a la lectura de la declaración institucional aprobada unánimemente por todos los portavoces. Creemos que es una cuestión importante, por lo que rogamos le den la difusión que se merece.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.


El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, UDAL ERAIKINEN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ESKOLA PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO-ESPEDIEN TEA ONARTZEA ETA EGUNGO KONTRATUA LUZATZEKO PROPOSAMENA. (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAIN GOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2015EKO APIRILAREN 22KOA).

Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordean 2015eko apirilaren 22ko irizpeneren berri ematen da:

TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE LIMPIEZA DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y COLEGIOS PÚBLICOS Y PROPUESTA DE PRÓRROGA DEL ACTUAL CONTRATO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 22 DE ABRIL DE 2015).

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal de 22 de Abril de 2015:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

"A).- Lizitaziorako deialdia.

Klausula administratibo eta teknikoen pleguaren zirriborroa aurkeztu da batzordean, Lehiaketa Publiko bidez lizitatuko dena hain zuzen ere.

Zerbitzua Udaleko Osoko Bilkurak onartu behar du, APKLTBren bigarren xedapen gehigarrian ezartzen denari jarraituz, kontratuaren balioa 6 milioi eurotik gorakoa da-eta.

2015eko Martxoaren 24ko osoko bilkuraren ebazpena martxoaren 18ko batzordearen irizpena hartu zuen bere gain, Zerbitzu eta Kontratazio Teknikarien azalpenak jaso eta gero.

Presidenteak aipatutako proposamenaren bozketa egiten du hurrengo emaitzekin:

Alde: PNV (4) y PP (1).

Kontra: 0.

Abstentzioak: BILDU (1) eta ARALAR (1).

UDAL ERAIKINAK, ERAKUNDE AUTONOMO ETA IKASTETXE PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEAREN aldeko irizpena Osoko Bilkuran aurkeztu da. Zerbitzuaren barruan Udal eraikinetako osoko garbitasuna sartzen da: desinfektatzea, arratoi-hiltzeak eta intsektuak akabatzea.

PROPOSAMENA:

Lehena.- Udal eraikinetako, erakunde autonomoetako eta ikastetxe publikoetako erakinen garbiketa-zerbitzuari dagokion espedientearen prozedura ireki bitartez eta Lehiaketa bidez onartzea, eta era berean, hitzarmena arautuko duten Baldintza administratiboei dagokien plegua eta Plegu teknikoa onartzea.

Bigarrena.- 3.180.685,55 euroko gastua onartzea, BEZ barne.

Hirugarrena.- Esleipen-prozedurari hasiera ematea.

B) Kontratuaren luzapena, udal eraikinetako, erakunde autonomoetako eta ikastetxe publikoetako garbiketa-zerbitzua egiteko.

"A).- Convocatoria de licitación.

Se presenta a esta Comisión el borrador de los pliegos de Cláusulas Administrativas y Técnica, para licitar mediante Concurso Público.

Servicio que se ha de aprobar por el Ayuntamiento Pleno al ser el valor estimado del contrato superior a 6 millones de euros, en aplicación de la Disposición Adicional 2ª del TRLCSP.

Retomado el dictamen de 18 de marzo de esta Comisión, por resolución plenaria de 24 de marzo de 2015 y tras las aclaraciones proporcionadas por las Técnicas de Servicios y el de Contratación.

La Presidenta pone a votación la citada propuesta dando el siguiente resultado:

Votos a favor: PNV (4) y PP (1)

Votos en contra: 0.

Abstenciones: BILDU (1) y ARALAR (1).

Elevándose al Pleno de la Corporación dictamen favorable EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE LIMPIEZA DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y COLEGIOS PÚBLICOS. El servicio comprende la limpieza integral: desinfección, desratización y desinsectación de la siguiente


PROPUESTA:

Primero.- Aprobar el expediente de contratación del "Servicio de Limpieza de Edificios Municipales, Organismos Autónomos y Colegios Públicos" por procedimiento Abierto y forma de adjudicación de Concurso, así como los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir en el referido contrato.

Segundo.- Aprobar, asimismo, un gasto de 3.180.685,55 euros, IVA excluido.

Tercero.- Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación.

B).- Prorroga del Contrato para la realización de los servicios de limpieza de los edificios municipales, organismos autónomos y colegios públicos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Egungo kontratuaren indarraldia 2015eko ekainaren 30ean amaitzen da; une honetan lehiaketa tramitazio-fasean dago, eta espero da aurtengo uztailean edo abuztuan esleitu dela. Esleipen berriaren tramitazioan izandako atzerapenak badiu bere ondorioak, besteak beste, gastuaren gehieneko aurrekontuan eta kontratazioa arautuko duten baldintzen inguruan izandako hausnarketak aipatu behar dira. Azken baten, gailendu egiten da kontratuaren azpian dagoen interes publikoa.

Kontratazio Teknikariak egindako txostena irakurri eta gero, zeinetan honako hau esaten den:

Lehen.- Kontuan hartuz kontratuak betetzen dituen beharizanen izaera, aldikako izaera eta zerbitzuaren jarraigoa, behar beharrezkoa da kontratuaren xede diren prestakuntza-zerbitzuak ez etetea, eta horretarako indarrean dagoen kontratua luzatzea da bidezkoena da harik eta kontratu berria formalizatu eta indarrean sartzen den bitartean.

Bigarrena.- Kontuan izanda interes publikoa aintzat hartuta zerbitzua emateko jarraigo-printzipioak bere egokitzapena aurkitzen duela toki udalbatzen zerbitzuen araudiaren 128. artikuluan, hau da, zerbitzua udalbatzak ezarritako eran eman behar dela eta udalak berak zuzenean kudeatuko izan balu baino eten gehiagorik emango ez dela gogoan izanda.

Hirugarrena.- Kontuan izanda kontu-hartzaileak, gastu-aurreikuspena dela eta, apirilaren 21ean adierazitakoa 2 hilabeteko luzapenari dagokionez eta, halaber, kontratu berria formalizatu arte.

Laugarrena.- Hortaz, prozedurak eskatzen dituen tramiteak espedientean bete egin direla ikusi ondoren, eta kontu-hartzailearen fiskalizazioaren kaltetan izan gabe, bidezkoa da eskumena duen kontratazio-organismoari, kasu honetan, Durangoko Udaleko osoko bilkurari, kontratua luzatzeko proposamena igortzea harik eta 1. puntuaren 1. atalean lizitatzen den kontratua indarrean sartzen den arte.

Dada que el plazo de vigencia del actual contrato finaliza el día 30 de junio de 2015 y está en fase de tramitación, cuya adjudicación está prevista para los meses de julio o agosto del presente año. La demora producida en la tramitación de la nueva adjudicación trae causa, entre otros, del proceso de reflexión seguido en torno a aspectos sustanciales del futuro contrato como son el presupuesto máximo de gasto y las condiciones que rijan la contratación, en aras en última instancia del interés público subyacente en la misma.


Dada lectura al informe emitido por el Técnico de Contratación, justificativo en el que se indica:

Primero.- Considerando la naturaleza de la necesidades que el contrato satisface, su carácter periódico y de tracto continuado, resulta necesaria garantizar la no interrupción de las prestaciones que constituyen el objeto del contrato mediante la ampliación de la vigencia del actual contrato hasta tanto se formalice y entre en vigor el nuevo contrato.

Segundo.- Considerando que el principio de continuidad en la prestación del servicio en función de los intereses públicos concurrentes y como remedio a su satisfacción encuentra acomodo en el artículo 128 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales relativo al deber de prestar el servicio en el modo dispuesto por la Corporación y sin más interrupciones que las que se habrían producido en el supuesto de gestión directa municipal.

Tercero.- Considerando lo informado con fecha 21 de abril por la Interventora relativo a la previsión de gasto para el periodo de prórroga estimado en 2 meses y en todo caso hasta la formalización del nuevo contrato.

Cuarto.- Por tanto, habiéndose cumplimentado en el expediente los trámites de procedimiento necesarios, y sin perjuicio de su sometimiento a fiscalización por la Intervención, se estima procedente elevar al órgano de contratación competente, en este caso, al Pleno del Ayuntamiento de Durango, propuesta de prórroga del contrato hasta su entrada en vigor del contrato que se licita en el primer apartado de este punto.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Presidenteak proposamena bozkatzea eskatu du. Emaita hauxe:

Alde: PNV (4) eta PP (1).

Kontra: 0.

Abstentzioak: BILDU (1) eta ARALAR (1).

Udalbatzako osoko bilkurari honako Proposamen honen aldeko irizpena igortzen zaio:

1.- "EULEN S.A." merkataritza enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena ebaztea, hain zuzen ere, udal eraikinen, erakunde autonomoen eta ikastetxe publikoen garbiketa integrala, desinfektatzea, arratoi-hiltzea eta intsektuak akabatzeke. Ikastetxe publikoak honako hauek dira: LANDAKO ESKOLA, ZABALARRA ESKOLA ETA JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA, hirurak daudelarik Durangoko Udalaren mende. Luzapena orain arteko baldintzak kontuan hartua egingo da harik eta kontratu berria indarrean sartzen den arte eta, betiere, udal interesen asebetetzea bermatzeko.

2.- Luzatuko den eperako gastua onartu da, hain zuzen ere, 251.133,66 eurokoa. Finantzaketa honako kontzeptu honen arabera egingo da:

2015. urtea, EKONOMIKOA 22701; 251.133,66 euro.

3.- KONTU-HARTZAIETZA sailari jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Azalpen eta zehaztasun guztiak emanda daude. Kontratua goitik behera ezagutzen dugu, hortaz, parte-hartzeen lehenengo txanda zabalduko dugu zuzenean.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Alkateak esan du zehaztasun guztiak emanda daudela, baina gogoratu beharra dago zelan egin den puntu honen tramitazioa. Eraikin publikoen garbiketa-kontratuaren inguruan ari gara, 3 milioi baino gehiagoko kontratua alegia, diru-kopuru

La Presidenta pone a votación la citada propuesta dando el siguiente resultado:

Votos a favor: PNV (4) y PP (1).

Votos en contra: 0.

Abstenciones: BILDU (1) y ARALAR (1).

Elevándose al Pleno de la Corporación dictamen favorable de la siguiente Propuesta:

1º.- Disponer la prórroga extraordinaria del contrato suscrito con la mercantil "EULEN, S.A." para la limpieza integral, desinfección, desratización y desinsectación respetuosa con el entorno de la totalidad de edificios municipales, incluidos los OO.AA. y los Colegios Públicos: LANDAKO ESKOLA, ZABALARRA ESKOLA y JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA dependientes del Ayuntamiento de Durango, en los términos en que se ha venido prestando dicho servicio, hasta la formalización y entrada en vigor del nuevo contrato y ello a efectos de garantizar la continuidad en la satisfacción de los intereses municipales.

2º.- Aprobar y disponer el gasto correspondiente para el nuevo periodo prorrogado por importe de 251.133,66 euros, cuya financiación se realizará conforme a lo siguiente:


Año 2015; ECONÓMICO 22701; 251.133,66 euros.

3º.- Extender comunicación para el ÁREA de INTERVENCIÓN, a los efectos oportunos."

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Ya se han dado todas las explicaciones y especificaciones necesarias. Como ya conocemos el contrato de cabo a rabo, abrimos ya la primera ronda de intervenciones.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: La Alcaldesa dice que ya se han dado todas las especificaciones, pero cabría recordar cómo se ha tramitado este punto. Hablamos de la contratación del servicio de limpieza de edificios públicos, un contrato que supera los 3 millones de euros, sin



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

garrantzitsua duda barik. Duela hilabete bat ekarri zen hona, baina erretiratu egin zen hainbat zalantza zeudelako: kontratazio-teknikariak plegu-proposamena egin zuten diru-kopuru zehatz batekin, baina, dirudienez, diru hori ez zegoen gordeta, zerbait falta zen kontratua burutzeko. Gero, hainbat egokitzapen egin behar izan dira eragozpen hori konpondu ahal izateko. Horrexegatik uste dugu, kopuru horretako kontratu batek beste tratamendu bat beharko zukeela tramitatzerako orduan.

Hori esanda, guk aldeko botoa emango dugu, uste dugulako beharrezkoa dela kontratuaren luzapena egitea. Epea bukatzeaz da, eta plegu berriak oraindik ez daude prest. Eta honek adierazten du kudeaketa eskasa egin dela: hainbat denbora izan da plegu berriak egiteko, dauden gabeziak atzemateko, zer hobetu daitekeen erabakitzeko,... Eta guk, EH Bilduk, hainbat bider eskaturikoa ere aztertu behar zen, alegia, zein izango litzatekeen zerbitzua publiko bihurtzearen kostua. Beste leku batzuetan egiten den bezalaxe, gurean ere posible da azpikontratu bidez egiten den zerbitzu hau zerbitzu publiko bihurtzea. Zerbitzuaren kalitatea mantendu egingo litzateke eta kostua gutxitu, besteak beste, BEZ aurreztuko genuelako eta enpresaren irabazien zenbatekoa ere bai.

Kontu hau berandu eta txarto etorri da, baina errua ez da langileena edo eraikin publikoen erabiltzaileena, errua kudeaketa txar bati egotzi behar zaio.

Dena dela, pleguaren eta luzapenaren alde bozkatuko dugu.

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Aldeko botoa emango dugula aurreratzen dugu, aurreko asteko ogasun batzordean egin genuen bezalaxe.

* **Agorria Martinez andreak PSE-EE (PSOE):** Plegua berriro aztertu dugu, hainbat galdera egin ditugu, baina, batez ere, langileei eragiten zieten alderdiak aztertu ditugu, hori baitzen gehien kezkatzen gintuena: kontratu horrekin zer egoeratan geratuko ziren alegia.

duda una cantidad de dinero nada desdeñable. Se trajo a debate hace un mes, pero se retiró porque existían dudas al respecto: Los técnicos de contratación hicieron una propuesta de pliego especificando una cantidad de dinero, pero por lo que parece, ese dinero no estaba reservado y faltaba algo para poder llevar a cabo el contrato. Posteriormente se han tenido que hacer varias modificaciones para poder resolver ese obstáculo. Por eso creemos que la tramitación de un contrato de esa envergadura merece ser tratado de otra manera.


Dicho esto, nosotros votaremos a favor, porque creemos que es necesario prolongar la duración del contrato. Falta muy poco para que se acabe el plazo y los pliegos aún no están listos. Y esto demuestra que la gestión no ha sido correcta: Ha habido tiempo suficiente para hacer nuevos pliegos, para detectar las carencias existentes, para decidir qué es lo que hay que mejorar,... Y se tenía que haber analizado los que nosotros, desde EH Bildu, hemos demandado una y otra vez, es decir, cuál sería el coste de convertir tal servicio en un servicio público. Al igual que en otros lugares, existe la posibilidad de que un servicio que se ofrece a través de una subcontratación pase a ser un servicio público. De esta manera se mantendría la calidad del servicio reduciendo el coste, ya que, entre otras cosas, se ahorraría en el IVA y en los beneficios de la empresa.

Esta cuestión se presenta tarde y mal, pero la responsabilidad no es ni de los trabajadores ni de los usuarios de los edificios públicos, sino de una mala gestión.

No obstante, votaremos a favor del pliego y de la prórroga.

* **Concejal Sr. Gastañazatorre Urizar (PP):** Anticipamos nuestro voto a favor de la misma forma que lo hicimos en la Comisión de Hacienda celebrada la semana pasada.

* **Concejala Sra. Agorria Martinez PSE-EE (PSOE):** Hemos revisado el pliego, hemos hecho varias preguntas, pero sobre todo hemos revisado lo relativo a los trabajadores y trabajadoras, pues era esto lo que más nos preocupaba: la situación en la que quedarían con la siguiente contrata.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Bizkaian bada hitzarmen bat baina udaleko garbiketa-zerbitzuko langileek lan-baldintza hobeak dituzte eta hala izaten jarraitzea nahi dugu. Gogor ahalegindu gara karatulako 8., 33. eta 15. puntuek honako hau jaso dezaten: enpresa esleipendunak zerbitzua uzten duen enpresak zituen eskubide eta betebeharrak guztiak subrogatu beharko ditu derrigor, bai ordainsariari bai kontratuari dagokionez. Horrek esan nahi du langileak berberak izango direla eta orain arteko lan-baldintzak, kontratua eta soldata izaten jarraituko dutela.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu):** Pleguan urrats handiak eman dira langileen eskubideen alde, eta hau egokia da guretzat.

Dena den, guk zerbitzu publikoaren alde egiten dugu. Txosten bat ere eskatu dugu, zerbitzu publiko honek izango lukeen kostuaren inguruan, baina momentuz ez dugu erantzunik jaso.

Pleguak arinegi egin dira; 3 milioitik gorako kostua du bi urterako, eta luzatzen bada, 6 milioitik gorakoa izan da. Gure iritziz, lanketa sakona egin behar da honen inguruan, eta ez, hemen egin den bezala, 2 hilabetez arituta.

Aldeko botoa emango dugu, beharrezkoa delako eraikinak garbi edukitzea. Langileen inguruan, bestalde, indarra egin da euren eskubideak hobetzeko.

Guk, esan bezala, gurearekin jarraituko dugu: garbiketa-zerbitzua zerbitzu publikoa izatea eskatuko dugu, eta honetarako egin beharreko azterketa eta kalkulu guztiak egingo ditugu zerbitzua udaletik eman ahal izateko.

* **5. Alkate Ordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Ez dira plegu errazak, nahiz eta batzuentzat zitzu bizian egindakoak izan. Guk aukerak eman ditugu zalantza guztiak argitzeko, aukerak egon izan diren heinean behintzat. Aukerak eman eta hilabete geroago, berandu egin dela, gaizki egin dela, kudeaketa txarra egin dela, e.a. entzuten ari gara. Betikoa, batzuk aitzakiak behar dituzte euren ez-egiteak zuzitzeko.

Existe un convenio en Bizkaia, pero los trabajadores del servicio de limpieza municipal tienen mejores condiciones, y queremos que eso se mantenga. Nos hemos ocupado de que en los puntos 8, 33 y 15 de la carátula se establezca el deber de subrogar, por parte de la empresa adjudicataria, los mismos derechos y obligaciones salariales y contractuales que tuviera la empresa cesante. Esto es, que van a seguir los mismos trabajadores y trabajadoras con las mismas condiciones, con el mismo tipo de contrato y con el mismo sueldo.

* **Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu):** En los pliegos se ha avanzado mucho a favor de los derechos de los trabajadores, lo que nos parece adecuado.


Sin embargo, nosotros preferimos que el servicio sea público. También hemos solicitado un informe sobre el coste que conllevaría tal servicio público, pero de momento no hemos recibido ninguna respuesta.

Los pliegos se han hecho demasiado a la ligera. Se trata de un coste de más de 3 millones de euros para dos años, y en caso de que se prolongue, superaría los 6 millones de euros. En nuestra opinión, este trabajo debe realizarse con mucha mayor profundidad y no como aquí, que se ha tratado en dos escasos meses.

Votaremos a favor, porque es necesario que los edificios estén limpios. En lo que respecta a los trabajadores, se ha trabajado mucho para mejorar sus derechos.

Como ya hemos indicado, nosotros insistimos y solicitamos que el servicio de limpieza pase a ser un servicio público y, para poder ofrecer este servicio municipal, realizaremos todos los análisis y cálculos pertinentes.

* **5ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Aunque a algunos les parezca que se han realizado deprisa y corriendo, estos pliegos no son fáciles. Siempre que las ha habido, hemos ofrecido alternativas para aclarar las dudas. Un mes después de ofrecer las alternativas, escuchamos que se ha hecho tarde, que ha habido una mala gestión, etc. Es lo de siempre. Algunos necesitan excusas para justificar su falta de trabajo.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Aldeko bozka emango dugu. Bermatu egiten dira langileen postuak eta lan-baldintzak, eta hau oso garrantzitsua da, eta horrexegatik jardun izan dugu lanean horren alde eta alkate andrea buru.

Teknikarien lana ere goraipatu nahi dugu: lan ona egin dute nahiz eta batzuek zalantzak izan.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Ez da hilabeteko atzerapena. Kontratua bi urterako zen, gehi luza-pena (1 + 1). Beraz, plegu hauek 4 urte eta hila-bete bat beranduago datoz. Lau urte izan ditugu gabeziak atzemateko eta, garaiz, plegu berriak prestatzeko, eta ez, orain ari garen bezala, 2 hilabeteko luzapena eginez eta atzetik datozenei "marroia" uzten.

Baina tira, ez dakigu nortzuk etorriko diren gure atzetik, baina argi daukagu hurrengo legegaldarako gure konpromisoa: garbiketa-zerbitzua, beste zerbitzu publikoekin egiten den bezalaxe, bere osotasunean aztertzea, publiko bihurtzea zer suposatuko lukeen ikustea, baina, betiere, langi-leen eskubideak bermatzeko arreta jarrita.

Beraz, aukerak badaude, garbiketa-zerbitzu hau zerbitzu publikoa bihurtzea da gure proposa-mena.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu)**: Plegua aurreneko osoko bilkurara ekarri zen, eta guri astebeteko epea baino ez zitzaigun eman testua aztertzeko. Zalantza asko izan ditugu, teknikariekin ere egon gara, eta proposamenak ere egin ditugu.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Kudeaketa txarrari egozteak plegua hilabete geroago etorri izana demagogia hutsa baino ez da. Luzapen bat egin behar izan dugu, baina ez da izan gure errua, baizik eta beste batzuek zalantzak izan dituztelako, eta guk eskatu zaizkigun azalpenak eman ditugu: batzor-dean eta osoko bilkura honetan eman ziren azalpenak, eta bertan izan ziren udaleko teknikariak kontuak argitzen; gerora ere, batzordera joan ziren, eta zalantzak zituzten asko eta asko mutu utzi zituzten. Beraz, ez dugu ulertzen batzuen jokaera. Azalpen bakarra da besteei botatzen dietela errua eurak egin izan ez dutenagatik.

Daremos nuestro voto a favor. Se garantizan los puestos de trabajo y las condiciones de trabajo, y esto nos parece muy importante, por lo que hemos trabajado duro para conseguirlo, con la alcaldesa a la cabeza.

Aunque algunos tenían dudas al respecto, también queremos destacar la buena labor de los Técnicos.


* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: No se trata de un retraso de un mes. El contrato era para dos años, más la prórroga (1 + 1), por lo que estos pliegos llegan 4 años y un mes tarde. Hemos contado con cuatro años para detectar carencias y tiempo suficiente para preparar nuevos pliegos. Y sin embargo, nos encontramos haciendo prórrogas de dos meses dejándoles el "marrón" a los que vienen por detrás.

Pero bueno, no sabemos quiénes vendrán detrás. Nosotros, de todas maneras, tenemos claro nuestro compromiso para la próxima legislatura: Analizar en profundidad el servicio de limpieza tal y como se hace con otros servicios públicos y ver lo que supondría que el servicio se convirtiera en un servicio público, siempre que se garantizasen los derechos de los trabajadores.

Por tanto, si existe la posibilidad, proponemos que el servicio de limpieza sea público.

* **Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu)**: El pliego fue presentado en el primer Pleno, tras el cual solo tuvimos una semana para analizar el texto. Nos han surgido numerosas dudas, nos hemos reunido con los técnicos e incluso hemos hecho propuestas.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Decir que el hecho de que el pliego llegue un mes más tarde se debe a una mala gestión es pura demagogia. No es culpa nuestra que hayamos tenido que hacer una prórroga. Algunos tenían dudas, y nosotros hemos dado las explicaciones que nos han pedido: Se dieron explicaciones tanto en la junta como en el Pleno y los técnicos estuvieron allí para aclarar dudas. Más tarde, también fueron a la Junta y dejaron sin palabras a muchos de los que tenían dudas. Así que no entendemos el comportamiento de algunos. La única explicación posible es que culpan a otros de lo que ellos mismos no han hecho.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Kudeaketa txarra dela eta, esan behar dut EAJk zentzunez jokatu duela azken lau urteetan, eta aurrean ditugun Bilduk eta Aralarrek zentzugabekeria egin dute oposizioa.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, haxe erabaki du:

A).- Lizitaziorako deialdia.

Lehen.- Udal eraikinetako, erakunde autonomoetako eta ikastetxe publikoetako erakinen garbiketa-zerbitzuari dagokion espedientearen prozedura ireki bitartez eta Lehiaketa bidez onartzea, eta era berean, hitzarmena arautuko duten Baldintza administratiboei dagokien plegua eta Plegu teknikoa onartzea.

Bigarren.- 3.180.685,55 euroko gastua onartzea, BEZ barne.

Hirugarren.- *Esleipen-prozedurari hasiera ematea.*

B).- Kontratuaren luzapena, udal eraikinetako, erakunde autonomoetako eta ikastetxe publikoetako garbiketa-zerbitzua egiteko.

1. "EULEN S.A." merkataritza enpresarekin sinatutako kontratuaren luzapena ebatzea, hain zuzen ere, udal eraikinen, erakunde autonomoen eta ikastetxe publikoen garbiketa integrala, desinfektatzea, arratoi-hiltzea eta intsektuak akabatzeke. Ikastetxe publikoak honako hauek dira: LANDAKO ESKOLA, ZABALARRA ESKOLA ETA JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA, hirurak dau delarik Durangoko Udalaren mende. Luzapena orain arteko baldintzak kontuan hartua egingo da harik eta kontratu berria

En cuanto a la mala gestión, he de decir que en los cuatro años el PNV ha actuado con cabeza mientras que Bildu y Aralar han hecho oposición de una manera insensata.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

A).- Convocatoria de licitación.


Primero.- Aprobar el expediente de contratación del "Servicio de Limpieza de Edificios Municipales, Organismos Autónomos y Colegios Públicos" por procedimiento Abierto y forma de adjudicación de Concurso, así como los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir en el referido contrato.

Segundo.- Aprobar, asimismo, un gasto de 3.180.685,55 euros, IVA excluido.

Tercero.- *Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación.*

B).- Prorroga del Contrato para la realización de los servicios de limpieza de los edificios municipales, organismos autónomos y colegios públicos.

1. Disponer la prórroga extraordinaria del contrato suscrito con la mercantil "EULEN, S.A." para la limpieza integral, desinfección, desratización y desinsectación respetuosa con el entorno de la totalidad de edificios municipales, incluidos los OO.AA. y los Colegios Públicos: LANDAKO ESKOLA, ZABALARRA ESKOLA y JULENE AZPEITIA HAURRESKOLA dependientes del Ayuntamiento de Durango, en los términos en que se ha venido prestando dicho servicio, hasta la formalización y entrada en vigor del nuevo contrato y ello



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

indarrean sartzen den arte eta, betiere, udal interesen asebetetzea bermatzeko.

2. Luzatuko den eperako gastua onartu da, hain zuzen ere, 251.133,66 eurokoa. Finantzaketa honako kontzeptu honen arabera egingo da:

✓ 2015. urtea, EKONOMIKOA 22701; 251.133,66 euro.

3. KONTU-HARTZAILETZA sailari jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako.

LAU.- BILDU ETA ARALAR UDAL TALDEEN MOZIOA JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGITASMOAREN AURREARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2015003042, 2015EKO APIRILAREN 23KOA).

Bildu eta Aralar Taldeko Bozeramaileek izenpeturiko mozioa, Jaurlaritzak bultzatu duen Udal Lege Egitasmoaren aurreari inguruari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2015003042, 2015eko apirilaren 23koa, eta honako hau dioena:

"Eusko Jaurlaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoaren aurrean Durangoko Udalak hurrengo adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interes politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

a efectos de garantizar la continuidad en la satisfacción de los intereses municipales.

2. Aprobar y disponer el gasto correspondiente para el nuevo periodo prorrogado por importe de 251.133,66 euros, cuya financiación se realizará conforme a lo siguiente:

✓ Año 2015; ECONÓMICO 22701; 251.133,66 euros.


3. Extender comunicación para el ÁREA de INTERVENCIÓN, a los efectos oportunos.

CUATRO.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES DE BILDU Y ARALAR RELATIVA AL PROYECTO DE LEY MUNICIPAL PROMOVIDO POR EL GOBIERNO VASCO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2015003042 DE 23 DE ABRIL DE 2015).

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación de los Grupos Municipales de Bildu y Aralar, relativa al proyecto de Ley Municipal promovido por el Gobierno Vasco, con Registro de Entrada nº 2015003042, de 23 de Abril de 2015, del tenor literal siguiente:

"Ante el Proyecto de Ley Municipal promovido por el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Durango quiere manifestar lo siguiente:

Este Proyecto de Ley Municipal llega tarde. El Gobierno Vasco ha tardado 35 años en ponerlo en marcha. Y después de todo ese tiempo, en lugar de hacer las cosas correctamente y ceder el protagonismo a los ayuntamientos, lo ha puesto en marcha con muchas prisas. Después de un periodo de tiempo tan largo, merecía que se debatiera con tranquilidad, con amplitud y con profundidad qué tipo de modelo municipal deseamos. En lugar de eso, se han impuesto el interés político del momento y las "prisas". No se ha puesto en marcha ningún mecanismo para escuchar directamente la voz de los representantes municipales y recoger sus aportaciones. No es lícito no buscar la participación de los ayuntamientos para llevar adelante un proyecto que tendrá una influencia tan marcada sobre ellos.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

Lege egitasmoak parte-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkaritza guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELe ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA: Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantzaketa bide berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dira baina oso azaletik. Horrekin udalak gaur eguneko egoera berdinean geratzen dira. Eskumenekin batera finantzaketarako iturri berriak aurreikusi beharko lirateke. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, jada udalek ez dagozkien baina garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie, baina finantzaketa bide berririk ez. Tamalez, hori horrela hainbat udalek ezingo liokete gaur egungo egoerari eutsi.


Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitzeke urratsik ematen. EAEko erakundeen arteko baliabideen banaketa Ekarpenean Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dira baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 Aldundien eta Udalen artean banatzen da. Koefiziente horien moldaketa edo eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantzaketa nahikotasuna.

El proyecto de ley habla mucho de participación. Por contra, no se les ha dado una especial opción para poder participar en su gestión a los principales beneficiarios/perjudicados de esta ley. No se ha hecho ningún esfuerzo por recoger las inquietudes, las necesidades o las sugerencias de los ayuntamientos en la elaboración de la ley. No se prevé ningún paso adelante en esa dirección en el procedimiento parlamentario de la ley. Se deja toda la representación de los ayuntamientos en manos de EUDEL. Desgraciadamente, EUDEL no representa hoy en día a todos los ayuntamientos de la CAV. La participación de los ayuntamientos y de los representantes municipales no puede limitarse únicamente a las aportaciones de EUDEL. Son indispensables otros mecanismos que se abran al cuerpo de la administración que desarrolla su trabajo en los ayuntamientos. De lo contrario, este proyecto guardará en su interior un problema de difícil solución desde un principio.

MODELO DE FINANCIACIÓN PROPUESTO POR LA LEY: Se les reconoce a los ayuntamientos la posibilidad de asumir varias nuevas competencias. Por contra, no queda muy claro cuáles serán las nuevas vías de financiación para desarrollar todas esas competencias. Se realizan algunas previsiones, pero muy superficialmente. Con ello, los ayuntamientos quedan en la misma situación que la actual. Habría que prever también nuevas fuentes de financiación junto con las competencias. Porque hacer lo uno sin lo otro genera muchos desequilibrios.

Por otra parte, a los ayuntamientos ya se les reconocen en la actualidad competencias que no les corresponden pero que sí desarrollan, pero no, en cambio, nuevas vías de financiación. Desgraciadamente, así las cosas, varios ayuntamientos no podrían soportar la situación actual.

No se dan pasos para actualizar y adecuar la cuota entre las instituciones. La distribución de los recursos entre las instituciones de la CAV es conforme a la Ley de Aportaciones. En ella, los recursos se distribuyen mediante coeficiente vertical y horizontal. El Gobierno Vasco recibe el 70,04% y el 29,96% restante se reparte entre las diputaciones forales y los ayuntamientos. La adecuación o actualización de esos coeficientes debería posibilitar suficiencia para desarrollar las nuevas competencias.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

HIZKUNTZA: Indarrean dagoen euskaren legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondaterik ez duten pertsonen eskubideak lehenesten dira. Era berean Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatuz. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntz eskubideen bermean aurrera urratsak eman behar dira. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA: hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dira norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAEko portuen kudeaketarako lege egitasmoa, Funtzio publikoko legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jardura. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dira. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...


Lege honek salto kualitatibo bat suposatu beharko luke. Zoritxarrez alor jakin batzuk arautzera mugatzen da. Oinarritzko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari

LENGUA: Tomando como base la ley del euskera actualmente en vigor, en esta Ley Municipal, en lo que al uso de la lengua se refiere, priman los derechos de aquellas personas que no tienen voluntad de aprender euskera. A su vez, se violan los derechos de las ciudadanas y los ciudadanos que desean vivir íntegramente en euskera. Se debe reforzar y proteger la voluntad de los ayuntamientos que desean desenvolverse íntegramente en euskera. Esta ley no lo garantiza de ese modo y se pierde así una magnífica oportunidad para ello. Se deben dar pasos adelante en la garantía de los derechos lingüísticos, pasos que tienen que ser recogidos expresamente por la ley.

DEFENSA DE LA AUTONOMÍA MUNICIPAL: en el prólogo se realizan declaraciones importantes en ese sentido. En esa misma línea, el articulado guarda también varias citas al respecto. Desgraciadamente, todo eso queda en simple filosofía. En estos momentos se encuentran en tramitación diversas leyes sectoriales (proyecto de ley para la gestión de los puertos de la CAV, ley de la función pública...) que dejarían en suspenso varias competencias de los ayuntamientos. Esa es la actuación que hay que evitar. Porque de nada sirve defender la autonomía en esta ley si luego se vulnera en la práctica mediante otras leyes sectoriales. Además de estar garantizado en el prólogo, todo eso debería ser garantizado también mediante el articulado. Se deben tomar medidas para que esta ley municipal tenga carácter de ley marco. De ese modo, todas las leyes sectoriales que se impulsen posteriormente deberían respetar este proyecto de ley.

Por otra parte, la ley quiere vincular la asunción de nuevas competencias por parte de los ayuntamientos con su solvencia. Eso se contrapone directamente con la defensa de la autonomía de los ayuntamientos. El eje de las competencias que tienen que gestionar los ayuntamientos no puede basarse en condicionantes de hacienda. La defensa de la autonomía local debe tener otras bases: cercanía, calidad de los servicios, beneficio de la ciudadanía,...

Esta ley debería suponer un salto cualitativo. Desgraciadamente se limita a regular unas determinadas áreas. La legislación básica continua siendo la del estado. Por lo tanto, en lugar de afrontar el reto de regular todas las circunstancias que rodean a los ayuntamientos



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta 2015eko APIRILAK 28

Acta 28 de ABRIL 2015

eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dira. Bien bitartean, EAEko udalek legeri espainiarrera erremittitzen jarraitu beharko dute.

EUDEL: erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat, hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELe ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarreez hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu inondik inora bidezko iruditzen.

TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRA AINTZAT HARTZEN: tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalez azpiko erakundeak ez dira aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketan izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealtateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealtatean sakontzeko urratsik ematen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA: herritarrengan dik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dira. Kultura berri bat sustatu behar da. Horretarako lege egitasmo hau erabakigarria izan daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerako tresna bezala aipatzen da. Urrats zehatzak emateko baino espedientea betetzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez osoko bilkuran, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat intrintsekoak beharko luketen hainbat eskubideren (informaziorako eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) inguruan ez da aipamen bakar bat egiten.


de la CAV, se posibilitan intereses de otro tipo. Mientras tanto, los ayuntamientos de la CAV deberán seguir remitiéndose a la legislación española.

